# MUNDUKO ETXERIK HANDIENA

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: JOXEMARI ITURRALDE

Azal gogorrean koadernatua. 22 x 27,5 cm. 36 or. 15 €.

Munduko etxerik handiena (euskara)
ISBN 978-84-7681-567-0. Gaur egungo klasikoak.

A casa máis grande do mundo (galegoa)
ISBN 978-84-8464-699-0. Tras os montes.

La casa más grande del mundo (gaztelania)
ISBN 978-84-96388-92-5. Clásicos contemporáneos

La casa més gran del món (katalana)
ISBN 978-84-8464-829-1. Clàssics contemporanis.

A maior casa do mundo (portugesa)
ISBN 978-989-8205-07-0. Clássicos contemporâneos.

*Barraskilo batzuk aza goxo batean bizi ziren. Etxeak gainean zeuzkatela, poliki mugitzen ziren hosto batetik bestera jateko mokadu bigun baten bila. Egun batean barraskilo txiki batek esan zion aitari:*
*"Handitzen naizenean munduko etxerik handiena eduki nahi dut". "Hori tontakeria galanta da", erantzun zion aitak, horixe baitzen barraskilorik jakintsuena aza hartan.*
*"Gauza batzuk hobe txikiak baldin badira".*
*Eta istorio hau kontatu zion...*

Leo Lionni, haurtzaroan, oso animaliazalea zen, narrastizalea batez ere, eta narrastiak zituen etxean, harearekin, herriekin, iratzeekin eta goroldiarekin egokitutako terrario batean.
Zaletasun haren fruitu izanen ziren, handik denbora puska batera, barraskiloaren kontakizuna eta halako beste batzuk.
Barraskiloak bere lagunek baino etxe handiagoa izan nahi zuen.
Metafora bat da, gai hauek biltzen dituena: bizitzari, zuhurtzia, gauzen praktikotasuna, apaltasuna eta xalotasuna.
Eta harrokeria eta axalekokeria kritikatzen ditu.
Literatur aberastasun handiko hizkerarekin, eta plastikotasun bereziko irudi koloretsuekin, Leo Lionnik alegia bat egiten du, aurreko liburuen bideari jarraitzen diotenak.
Hala nola: "Urdin Txiki eta Hori Txiki", "Frederick" edo "Igeritz".
Istorio hauek denek, egilearen hitzetan, "gauzen eta gertakarien muina intuizioz ulertzeko bide ematen dute".




■ **Gaiak:** apaltasunaren aldeko alegia.
■ **Gomendatutako adina:** 5 urtetik aurrera.
■ **Alderdi azpimarragarriak:** haur literaturaren lan klasiko bat. Animaliak, guraso eta seme-alaben arteko harremana, bizitzaren ikasketak. Honako hauen egile berarena: *Alex eta sagu mekanikoa*, *Frederick*, *Urdin Txiki eta Hori Txiki*, *Igeritz*, *Matiasen ametsa*, *Arrarik arra*.
■ **Liburuaren laginaurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/munduko-etxerik-andiena-eusk

**Leo Lionni**

(Amsterdam, Holanda, 1910 - Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen –ama opera-kantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia- eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian doktoratu baitzen. 1931n Milanen bizitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista gisako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionnik berak noizbait esan zuenez, "Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimenak adierazten ditu beti". Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabean sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiez egindako istorio baten bidez bilobak entretenitzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen "Urdin Txiki eta Hori Txiki", eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40tik gorako obra gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.

www.Kalandraka.com
comunicacion
www.Pamiela etxea.com
soltxa



